



## INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEA INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEA

### 2/2016 AKTA

2016ko abenduaren 1ean, goizeko 9:00etan, Gasteizen bildu da **INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEAREN OSOKO BILKURA**, marjinean adierazitako kideak bertaratuta. Aldez aurretiko bilera-deialdia egin zen, eta honako gai-zerrenda hau jorratu zen:

1. 1/2016 Kexa ebazteko proposamena aztertzea (Tramitagune-ko 2016/00055 espedientea)/ Estudio de la propuesta de resolución a la reclamación 1/2016 (expediente 2016/00055 en Tramitagune).
2. Presuntziosko ukatzea dela-eta, epeak zehazteko irizpidea hartzea/ Adopción del criterio de plazos ante denegación presunta
3. Euskadi.es webgunean Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen edukiak aldatzea/ Modificación de contenidos de la presencia en la web euskadi.eus de la Comisión vasca de acceso a la información pública.

#### **BATZORDEBURUA:**

Javier Bikandi Irazabal jauna

#### **KIDEAK:**

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea  
Ana Arkotxa Azkue andrea

#### **IDAZKARIA:**

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

#### 1.- 1/2016 Kexa ebazteko proposamena aztertzea (Tramitagune-ko 2016/00055 espedientea)

Espedientean bildu diren dokumentuak eta Ana Arkotxa Azkuek, espedientearen instruktoreak, egin dituen izapideak aztertu ondoren, ebazpena baiestea aho batez erabaki da, honako baldintza hauek ezarrita:

**LEHENA.-** Arrazoi formalak direla-eta, baiestea erreklamaziotegileek Balmasedako Udalean jarri duten erreklamazioa. Erreklamazioaren arabera, Udalak epez kanpo bidali du informazioa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 63.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Deklaratzea erreklamaziotegileek eskubidea dutela «Bascula» 2. jardute-unitatearen sektoreko jabekidea egiten ari den obren lizentzia jasotzeko. Halaber, eskubidea dute udalaren zerbitzu teknikoek obra horiei buruz egin duten txostena jasotzeko, jabekidearen eta obren helmenaren gaineko datuak zehaztuta, Udalak dokumentu horiek baldin baditu.

**HIRUGARRENA.-** Udalari eskatzea gehienez ere hamar eguneko epean erreklamaziotegileei emateko honako dokumentu hauek: «Bascula» 2. jardute-unitatearen sektoreko jabekidea egiten ari den obren lizentzia eta udal-zerbitzu teknikoek obra horiei buruz egin duten txostena, jabekidea eta obren helmena zehaztuta; baldin eta informazio hori Udalean badago.

Informazio hori ez baldin badauka, gehienez ere hamar eguneko epean esan beharko die erreklamaziotegileei.

**LAUGARRENA.-** Balmasedako alkateari eskatzea ebazpenaren gauzatze materialerako egiten dituen jarduketan berri batzorde honi emateko.

**BOSGARRENA.-** Ebazpena jakinaraztea erreklamaziotegileei eta Balmasedako Udalari.

**SEIGARRENA.-** Behin jakinarazpen horiek eginda eta datu pertsonalekiko lotura kenduta, batzordearen webgunean ebazpena argitaratzea eta Arartekoari jakinaraztea.

## 2.- Presuntziozko ukatzea dela-eta, epeak zehazteko irizpidea hartzea

Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko Legearen 24.2 artikulua haxe ezartzen du: «*Aurkaratzen den egintza jakinarazi edo administrazio-isiltasunaren ondorioak hasi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea egongo da erreklamazioa jartzeko*».

Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari buruzko 128/2016 Dekretuak 4. artikuluan ezartzen du erreklamazioa izapidetzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak errekurtsioei buruz ezartzen duenari jarraituko zaiola (lege hori 2016ko urriaren 2a arte indarrean egon zen, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ordeztu du).

39/2015 Legeak 122.1 artikuluan (gora jotzeko errekurtsioetarako) eta 124.1 artikuluan (berraztertze errekurtsioetarako) zehazten du, egintza espresua ez bada, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek berraztertze errekurtsioa jar dezaketela, noiznahi, berriazko araudiaren arabera presuntziozko egintza gertatu eta biharamunetik aurrera.

Erreklamazioak kasu batzuetan administrazio-errekurtsioak ordeztu ditu (Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legearen 23. artikulua, 30/1992 legean 107. artikulua zen 39/2015 Legearen 112.2 artikuluaekin lotuta); beste batzuetan, gora jotzeko errekurtsioak, eta, beste batzuetan, berraztertzeak ere bai. Hori dela-eta, informazioa eskuratzeko eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ezesten denean, irizpide hori baliatu behar da;



zehatzago esanda, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek berraztertze errekurtsoa jar dezakete, noiznahi, berariazko araudiaren arabera presuntziozko egintza gertatu eta biharamunetik aurrera.

Ildo horretatik, konstituzio-jurisprudentzia ere badago. Horren arabera, presuntziozko ebazpenaren aurkako errekurtso judizial bat jartzeko gehienezko epea zehaztea ez dator bat benetako babes judizialerako eskubidearekin.

Hori dela-eta, 39/2015 Legea indarrean jarri aurretik ere, Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluak interpretazio-irizpide hori hartu zuen (001/2016, 2016ko otsailaren 17koa). Horren arabera, ez dago eperik, informazioa eskuratzeko eskaera bat isiltasunaren bidez ezestearen zioz Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluan erreklamazioa aurkezteko.

Irizpide hori bat dator, bai jardun publikoaren gardentasuna areagotzeko eta indartzeko xedearekin, bai informazioa eskuratzeko eskubidearen bermearekin eta berrespenarekin (eskubide hori eremu subjektibo handiko eskubide gisa araututa dago). Halaber, irizpide horrek berresten du erreklamazioa Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluan, edo, kasu honetan, Euskal Batzordean, aurkezten denean, erreklamazio horrek administrazio-errekurtsoa ordeztu duela.

Horregatik guztiagatik hauxe erabaki da: ez dela eperik bete behar, informazio-eskaera bat isiltasunaren bidez ezestearen ziozko erreklamazio bat Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordean aurkezteko.

### 3.- Euskadi.es webgunean Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen edukiak aldatzea

Egun arte GARDENA–Gardentasun atarian eta egoitza elektronikoko PROZEDURA-FITXAN argitaratu den informazioa aztertzea eta egokitzea erabaki da. Helburua edukiak 2. puntuan hartutako irizpidearen arabera moldatzea da; horrela, tokiko erakundeek informazio publikoa eskuratzeko ukatzen badiete, eta herritarrek erreklamazioa jarri nahi badute, erreklamazioen prozedura errazagoa izango da.

Bestetik ezean, bilera amaitutzat eman da 10:10ean.

**Idazkaria**  
**Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino**

**Batzordeburua**  
**Javier Bikandi Irazabal**

**Kidea**  
**Ana Arkotxa Azkue**